


# ZAR

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

264n. zenbakia  
garagarrilla -agustua 2001



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE



**PIERRE LAFITTE (1901-05-21 - 1985-02-23)**

- EUSKALTZAINDIAN EUSKALKIEN ALDE GOGOTSU
- “EZ ONARTU GURE H”A: ONDATZERA DOAN ONTZIA GARA”
- IDAZLE UGARIA, LUMA ARGI TA BIZKORRA
- BENETAKO ABERTZALEA TA ELEIZ-GIZONA

# ORAIN BERROGETA AMAR URTE

1951n. urtean, bagillaren 29n. egunean izan zan. Goizean goizetik batu gintzan Begoña'ko eleiza ederean, ospakizun aundi eta eder bat egiteko: Ainbeste urtetan biotzean genduan amets eta gurari eder bat beteteko eguna zan.

Ospakizuna asi zanean, gure aurrean aurkeztu zan Bilbao'ko Gotzain izendatu-barria zan Kasimiro Morzillo eta bere ondoan Meñaka'koa zan Aurtenetxe ta Goitia'tar Frantzisko (D. Pako). Azkenengo onek berba gogoangarri oneik esan ebazan: "Urreratu beitez abade-mailla artu bear dabenak".

Eleizearen dei orreri erantzunez, pozik aurreratu giñan.

Itzalditxu bat egin ondoren. Gotzaiñak gure buru-gaiñean eskuak ezarrira, berba sagaratzailleak esan ebazan.

Bai, abadeak giñan, betirako abadeak.

### Egunak, norkiak eta tokiak

Bakoitxaren bizitzan eta gure fede-bidean egun gogoangarriak izaten dira eta egunakaz batera doaz norkiak eta tokiak.

1927n. urteko zemendiaren 18n. egunean bateatu ninduen aurreko egunean jaioa nintzan au eta bateatzaile Kortezubiko Juan Jose Baztegieta abadea izan zan. Ez daukat aitzuta abade ori eta abade egin nintzeanean eskutitza cgin neutsan. Erantzun be bai berak egokiro. Bateo-egunaren urteagarrenak ospatzeko, urtero joaten naz Gamiz neure errira eta ponte edo bateo-arriaren aurrean "sinisten" dot eta "Gure Aita" esaten dodaz. Orra or eguna, norkia ta tokia.

Abadegintza-eguna gogoratzeko Kasimiro Gotzaiña eta Begoña'ko eleiza izaten dodaz kontuan.

Baiña urteurrenak ospatzean, era berezian aunkiro opatzen dira 25n. 50n. eta 75n. urteak. Oiturea da. Eta aurten berrogeta amargarren urtea ospatzen dogu.

### Jazokizunak

Ospakizun au egiteko berrogeta amar urte oneitako jazokizunak gogoratzen doguz: Ubide'ko iru urteak.

Fruniz'ko 11 urteak, Mungia'ko bost zigor-urteak, Zeanuri'ko amar urteak, Bermeo'ko sei urteak eta Mungia'ko amabost urteak, eta urte orreïn barruan egindako abade-etxe barriak, ikertuko gaisoak, lenengo jaunartzeak, ezkontzak, illetak... eta erri-giroko ikasketak Obiedo'n, Madrid'en eta Deustu'n, etxetik joanda. Militarrak, Gotzaiñak eta erri-epaikariak ezarri eustezan epaiketak eta Olite'ko Lekaide-etxean, nitzat espetxe biurtua orduan ondo igaro neban illebetea, Santia-ego egunean Ipiñaburu'tik urten eta ara joan ondoren.

Berrogeta amar urte bete-beteak izan dira, geienetan egunean sei-zortzi ordu gazteai irakasten igarota.

### Gaurko egoerea

Igaroak igaro, ona emen zar-saridun eta al dodan neurrian laguntza emoten: Egunero Zarren egoitzan mezea, astero ain maitu dodan Fruniz'ko errian mezea emonda eta orduak eta orduak irakurten eta idazten eginda.

Sasoi onetan osasunari begiratu bear dautsagu gei-ago, egunero osakiak artuz, ibillaldiak egiñez, jan-edanagaz kontuz ibilliz.

Eta asti gei-ago daukat otoitz egiteko, bakarrik naiz lagunakaz. Orrelan lortzen dot Jaungoiko Aita onaren eskuetan uste osoz bizi izatea.

Fedeari be ardura bereziaz begiratzen dausat, garbi-agoa ta sendoagoa izan daiten irakurten dodazen liburuak lagun dirala. Azkenengo liburu bi aitatuko dodaz egun oneitan irakurriak: Hermas'en artzaiña, Kerexeta adiskideak euskeratua, liburu polita, irudime-nez eta jainko-zaletasunez bete-betea eta Meier'ena eta Kristoren erri-edestiari buruz dan liburua, fedea argit-zeko eta fedea eldua daukenentzat oso egokia, egiaren bildurrik bagarik irakurri bear dana.

Orra or "urrezko eztegu"en urteko zeregiñak, bide orretatik jarraituko dot urte osoan.

Irakurle! Otoitz bat egizu Jaunak emondako zeregin au aurrerantzean be zeatz eta zintzo bete dagidan. Eskerrik asko. ■

OLAZAR'tar Martin'ek

# AUTESKUNDEA

## (2001-05-13)

### Urduritasuna

Egokion eguna baiño urtebete lenago, Euskalerrian oiña ez euken alderdiak ori ekin eta ekin eskatzen ebelako, azkenean egin zan autezkundea orrillaren 13n. egunean.

Aurreko illeak, ille pare bat bai gitxienez, urduritasunez bateak izan ziran, erbestean sortutako alderdi orreik okerreko salakuntzak eta iraiñak ezarten ebezelako emengo alderdi alkartu (EAJ ta EA)ren aurka, gogorkeriaren alde egozala, batez be. Ori guzur aundia zan, alderdi oneik bete agertu diralako gogorkeriaren aurka eta eraillak izan diranen etxe-koen alde. Besteak beti esaten eben abertzaleak ziralako gogorkeriaren errudun eta Ajuriane an aldakuntza bear zala, Euskalerrian askatasuna ezarteko. Eurentzat askatasuna ez zan erriarena, ETA'ren aldetik aurrean erabilliak ziran erritar batzuren a baiño.

Guk ondo genkian salakuntza ori guzurrezkoa zana, baiña esan eta esan erritarrak azkenean sinistu egiten dabe eta orrek autarki asko kendu eikezan. Gaiñera, Lendakaria eraildako baten-baten illetara gogo onez joaten zanean, inguruan ziran batzuk iltzaillea! oiukatzen eben eta txistuka bere aurka asi. Ori sarritan jazo zan, baiña geien Jaka'n izandako illeta baten.

Orregaitik, euskalzaleak eta abertzaleak oso urduri genozan.

### Euskaldunak zutunik

Etorri zan aukezkunde-eguna eta goizean asita autarkia emoten iñoz baiño erritar geiago agertu zan. Itxaropena zan gugan. Euskaldunak guzurren eta iraiñen aurka zutunik egozan, zorionez! oraingoan arabarrak be bai. Gabean asi ziran autarkien zenbaketa egiten eta, a bai poza, EAJ ta EA'k autarki asko artu eben. Azkenerantza kanpotiko alderdi bien autarkiak eta emengoan, zenbaki bardiña euken. Barriro urduritasuna!

Baiña gabeko amaikak baiño lentxuago urduritasun ori aunditu egin zan: Aurki edo eskañu bat egoan nora ezean,

batera jausten ba'zan, eurak nagusi, bestera jausten ba'zan emengoak nagusi. Lekeitio ta Plentzia'koak ziran zenbatzako egozan autarkiak eta orrek itxaropena emoskun erri abertzaleak ziralako. Azkenean autarkiak erabagi eben aurki ori gutzat izatea eta orrelan 33 aurki ziran gurean eta 32 eurenak. Azkenean arnasea artu gendun!

### Jaurlaritza barria gertatzen

Orain, Iege-aurki orreik kontuan dirala, aldirako Lendakari dan Juan Jose Ibarretxe'k egin bear dau guztiakaz al karizketa. Au da giroa: PP'k ez dau nai jankide izaterik gu gogorkeriaren alde gagozelako, PSOE'k ez dau nai Araudia ta Laterri-Legea oiñarrizat artzen ez ba'dira. EH ez da onartzen gogorkeria "kondenatu" arte.

Zer egin olako egoeran?

Antza dagoanez, ez da beste biderik ikusten EAJ ta EA'k jarukaritza osotzea baiño, eta 33 autarkigaz ori egin leikee bigarren ekinaldian. Gero lege bakoitxean orren gaiñera datozen autarkiak onartuak izango dira.

Ezker Batua alkartuko ete dan gureakaz, diño.

### Norantza jo?

Araudi ta Laterri-Legea, urtenbidearen asiera lez, onartu eta ortik aurrera aldakuntzea billatu, geure buruaren jabetza eta, epe luzeago baten, askatasun osoa lortzeko. Orain esan-gura argiagoa dauka "Gora Euzkadi Azkatuta" geurea dogun oiuroak. Urrin ete (lago askatasun osoa?)

Kanpoan oiñarria dauken alderdiak, itun eta buru-makur agertzen dira eta euren arduradunak lanean emen jarraituko dabela diño. Ori batez be garrantzizkoa da Mayor Oreja'rentzat. Beronen ministeritza itzita etorri zan, bete-betean lendakari izango zalakoan. Ezetzak urten dau. Orain zer egin? Emen jarraitu bere alderdia dan PP'ren alde jokutzen.

Euskaldunak, iñoz baiño geiago, zutunik gagoz!

**OLAZAR'tar Martin'ek**

## ZER ALDIZKARIA

**Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (3.000 pezeta) kontu onetan:**

**EUSKERAZALEAK  
BILBAO BIZKAIA KUTXA  
Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!**

**Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 3.000 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear.**

**Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.**

**Eskerrik asko!**

## AGILAR'EN MENDARTE'TIK

Ni sekula ez nintzan egon inguru ortan, eta Latxagak ara eroan ninduan Kodes'eko Santutegia ezagutzera; inguruko erri-  
txoak ere bai, idazki onen bitartez, obeto ezagutu daigun gure  
Euskalerrri maite au.

Kodes'ko Mendi-besanga onek, inguru-Geografiko bat  
(Geografia-política) osotzen dau, Urbasa'ko Mendi-katean eta  
Toloño'ko (Cantabria) Mendi-kate artean egon arren. Iparral-  
de'tik Kanpezu'ko Santa Gurutze eta Ego-aldean Biana;  
Sortalde edo Eguzki-alde'tik Lapoblacion, eta Ego- sarkalde edo  
Ego-Mendebaletik Sansol'ek mugatzen dabe.

1930'an 3.800 giza-seme euki ebazan Ibar onek beren 10  
erri-txiki oneitan: Agilar de Kodes, Torralba del Rio, Azuelo,  
Otiñano, Kabredo, Marañon, Desojo, Lapoblacion, Espronzeda  
eta Uxanabilla (Genevilla).

Kodes'ko Santutegia'ri, len Yoar edo Joar-Santutegia dei-  
tzen eutsoen, Joar mendi barrenean dagoelako kokatuta; eta esa-  
ten dabe, Ama Birjiñaren irudi bat daukala, maomatarren craso-  
tik iges eginda Toloño'ko-ak ekarritakoa.

Beren jaiak: Torralba del Rio'tarrak Lorailla'ren lenengo  
Larunbaten ospatzen dauana; Desojo'k, Lorailla'ren leenengo  
Domekan; Espronzeda'k, Mendekoste'ko bigarren egunean;  
Agilar de Kodes eta Berrueza'k, Mendekoste'ko bigarren egu-  
nean ere bai. Jende asko joaten da egun orretan Lizarra'ko  
Merindadetik, bai Logroño eta Araba'tik ere. Beste jai eder bat  
ere ospatzen da Ama-Birjiñaren Jaiokunde'ko urrengo Dome-  
kan Irailla'ren 16'aren inguruan dana; erromes asko ortozik eta  
soin-gaiñeko bai kapeluz edo burkoz estalita doazenak. Jai aun-  
dia izaten da.

### Izkuntza:

Euskara izan zan curen izkuntza, baiña zori txarrez  
XI'garren gizalditik XVI'garren gizaldira galdu eben, gaur  
Gaztelera da curen izkuntza, baiña uste dot curen gizon/emaku-  
me-aldiak etorkizunean osatuko dabela Nortasun-zauri latz ori.

### Politikan:

1932'ko auteskundetan, autonomiaren alde egon ziran  
Torralba del Rio eta Azuelo izan ezik, utziera edo atzentzioara  
jokatu ebelako. Denbora ortan, jaiak ezpatadantzariekin ospa-  
tzen ebezan. Jendarte maillan, ezberdintasun aundia egon zan  
curen artean, eta ekintza orrek, curen arteko bizia mugatu egi-  
ten eban. 1936'an Otsaillaren auteskundetan amar erritxo orrei-  
tan, eskubi alderdikoarentzat 1.279 bozka izan ziran; 211 E.A.  
Jeltzalearentzat; eta 119 ezker aldekoentzat. Baiña curen Euskal  
sinismena 1932'an Iruña'ko biltzarrean ziñatuta geratu zan,  
autonomiaren alde jokatzegaitik.

1936'an guda asi zanean, iru gizon izan ziran izkillatuak:  
Agilar'eko Juro'tar Alge Dionisio, Irailla'ren 25'an; Desojo'ko  
Sainz'tar Maximo, San Kristobal'eko gaztelutxoan sortu zan  
iges-aldian erioztu ebena; eta San Bizente'tar Bitorino, Urriaren  
11'n Lizarran espetxeratu ebena eta 1937'an Epaillaren 22'an  
Azketa-Iguzkiza'ko bide egal baten ilda agertu zana. Nafarroan  
tiro aldirik ez egoteko lartxo uste dot dirala. Ezker aldeko ziñe-  
gotziak ere kendu ebezan. Republikanoak, Abertzaleak edo  
Irujo aldekoak ziralako. Eta euren artean ere salaketak egon  
ziran, eziñ-ikusiatatik edo lurra eurentzat gura ebealako eta  
abar. (NABARRA 1936 "DE LA ESPERANZA AL TERROR"  
59 orrialdean).

**Zeintzuk ziran, Latxaga eta nire gogoak Agilar'ko Ibar  
ori ikusterakoan?**

1.- Nolako itxura daukan geografikoki eta gizatasunean.

- Leenengo arlotik esan bear dot, zugatzen utsune asko  
ikusitako nebala inguruetatik, erain ez diran lurretan; eta orrek

alperkeria erakusten dau. Gizatasun aldetik, Euskal petoak dira  
eta langilleak, abere eta nekazaritzatik bizi diranak: bik edo  
aleak (cereales), lur-sagarra, leka-gauza, ortuari, maatsa,  
azukrearen arbi edo udarbia (remolacha azucarera) eraiten  
dabez; au da Nafarroan mendi bealdeko lurra ondoen emoten  
dauana.

2.- Jakitea, nolako artegatasunak daukiezan.

- Ez gendun denbora aundirik euki zeatz jakiteko, arrasti  
bat luzca izan arren, ez daualako emoten ainbesterako: lurral-  
dea, bas-elizak, Kodes'ko Ama Birjiñaren Santutegia ain poli-  
tikak direnak, baratzak, mezuak ikusi, argazkiak etara mezuari  
eta abar. Idatzitako mezuak asko ikusi genduzan orma zarretan,  
arri aundietan, etxolen harruko eta alboko ormatan, lantegi  
aurre aldeetan eta abar, alde bietakoak: Nafarroa Espaina ez  
dala, presoak kanpora, guardia zibillak kanpora, Espainolak  
faziztak zarete eta abar, alde batetik; beste aldetik, Nafarroa  
Espaina da eta aurkako gauzak; eta ikusi gendunagaitik bizi-  
bizian.



*Idat, itako nle zuak  
fkusi genduzan  
orina zarretan:  
artegatasuna agirí  
da.*

Azuelo erritxoa barrutik ikustera joan giñan, eta an dagoan  
San Jorge Monastegi ederra eta edesti oso zarrekoa, baiña zarrat-  
tuta egoan. Arduradunaren billa joan bear gendun eta berela  
agertu zan. Berarekin berbetan egon giñanean, konturatu gin-  
tazan ez eukela Nafar-edestiarekin adore aundirik eta politika-  
arloan gitxiago.

3.- Eurongandik zer jakin gura gendun, gau arte ez dakigu-  
nik.

- Leenengo beintzat, euren Euskal-Nortasuna nola dagoen.  
Idatz-borroka bizi orrek, nolako egia daukan; eta nolako inda-  
rrak daukiezan Ibar ori txukun-txukun aurrera eroateko.

Arrasti on-bat gozatu gendun eta gauza asko ikusi, baiña ez  
guk gura gendun beste, eta orregaitik itzi gendun beste egun oso  
baten ikertzeko. Ori bai!, ogitarteko gozoakaz eta ardo onarekin.

"BATEN-BAT GEIAGO ARDURATU BEAR LITZAKE  
OLANGOKO GAUZAKAZ" ■

ATUTXA'tar PAUL  
ZORNOTZAN 2001'an LORAILLA'ren 31'an

## PIERRE LAFITTE (1901-2001)

Aurtengo orrillaren 21n. egunean beteko ebazan eun urte, bizi izan ba'litz, Pierre Lafitte euskaldun eta idazle jatorrak.

Ori dala-ta, atsegiñez irakurri dot DEIA'n Iñaki Mendizabal'en idazlana, laburra baiña mamin-tsua.

Gauza asko ekarri dauz nire burura idaz-lan onek eta Lafitte'k berak.

Euskerazaintza sortzeko asmotan gelbitzala, Aita Santi Onaindiak eta biok ibillaldi bat egin gendun iparraldera gure asmoen barria zabaltzeko eta bazkideak billatzeko. Ikustaldi batzuk gogoratuko dodaz: Robles Arangiz'en etxea mendigaiñean Estitxu aitzu-eziña gogoan genduala, Belok'eko monastegian Dihartze abata eta, azkenez, gure Pierre Lafitte gogoangarria. Au Uzta-ritz'eko seminarioan.

Dihartze ta Lafitte biak ziran euslatzaiñak eta euskaldunen zintzotasunari sendo oratuz, bide orretatik jarraituko ebela esan euskuen, naizta eritxietan gugaz batera etorri.


### Zelakoa zan Lafitte?

Olako ikustaldi labur baten ezin ezagutu iñor, ez beintzat zelako dan esateko bestean, baiña Lafitte'k bere burua ezagutzen eban eta "kaskagorrra" zala esaten eban. Gaiñera bere jazkeran eta izkeran argi agiri zan gizon oso apala zala, "sotanea" jazten eban gure ikustaldi egunean eta ez ain liraiña ta garbia. Gaiñera Uztaritz'eko Seminario aretan lanik apalenak egiten agiri zan geure aurrean. Eta berbetan be apal-apal agertzen zan, esaterako gero esango dogun atxearen arazoan.

### Idazlea

Saint Pierre gotzaiñari zor deutsola, diño Lafitte'k, abertzaletasuna ta euskaltzaletasuna, naizta zazpi urtekoa zala umezurtz geratu. Gotzain orren eskutik artu eban egoaldeko aldizkaria, gramatika bat eta Azkue'ren iztegia.

Laster biurtu jakun idazle gure Lafitte, bere lenengo lanak ziran gramatika txikiari eta iztegi laburrari jarraituz. Ainbat aldizkaritan agiri dira bere lanak: Eskualduna,



Gure Erria, Le courrier de Bayonne, La Presse, La liberté de Sud-Ouest.

1934n. urtean "Aintzina" ille-roko aldizkaria argitaratu eban, Labegerie, Lartzabal, Legasse anaiak eta Xarriton euskaltzalle ezagunak lagun ebazala.

1944n. urtean arnaitu zan Eskualduna aldizkaria argitaratzea eta urte orretan sortu eban Lafitte'k Herria, Monzon eta Sota lagun ebazala.

Ba ditu beste ainbat liburu, elertiaren edesti labur bat be bai.

### Euskaltzaiña

Ipparraldean ainbeste lan egiten eban gizona ezin zeitekean Euskaltzain izan barik geratu.

1952n. urtean izendatu eben euskaltzain oso.

### UMEAK ONDO EZI EGIZUEZ

### ETA EZ DOZUE GERO

### BURU-AUSTERIK IZANGO

(PITAGORAS 'EK)

Lafitte gurea 1968n. urtean Arantzazu'n batzar aretan kideko izan zan eta argi ta garbi agertu zan euskeran atxea



ALDI ZKARI ONEK  
BI ZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN  
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU

sartzearen aurka. Baiña egoaldekoak ekin-ekin ibilli jakozan eta iparraldean atxea esan egiten zala eta onartzeko eskatzen zan baiña berak esan eutsoen: "Iparraldeko gure euskerea ondatzera doan itxas-ontzia da eta ez zaitez sartu ondatzera doan itxas-ontzira".

Dana dala, atxea bear zala ta sartu eben eta emen daukagu ainbeste kalte egiten. Lafitte'k berak be onartu eban atxe ori. Ez zan, antza, berak diñon besteko kazkagorra! "Euskaltzaindiak ori erabagi dauan ezkeru, ez dut tematu nai" esan eban.

Kazkagogorkeri ori agertu ez arren, guk maite dogu Pierre Lafitte abertzale ta euskaltzale on eta beroa. Asko ikasi bear dogu beragandik eta geiago be esango neuke gaurko gure giroari begira: Auteskundan irabazle izan dira abertzaleak, zorionez, eta orain, nire ustez, lan berizi eta gogotsua egin bear dogu Euskalerraren iparraldea

ta egoaldea ondo alkartzeko eta izkuntza, jakintza, ekonomia, lana eta dana geure artean banatzeko. Lan ori sakon eta zabal egin ondoren, erreago izango da Euskalerrri osoa, zazpiak bat, munduaren aurrean agertzea, erreago baita "soberania" edo buru-jabetza osoa lortzea, erreago "independentzia" erriak nai izan ezkeru. Aberrria gara eta ba-daukagu eskubide ori, baiña bideak bizkor billatu eta zabaldu bear dira, lenengo ta bein ipar eta egoalkartasuna.

Orretan oso eredu ona dogu Lafitte. Berak ondo jakin eban Ipar eta Ego-Euskalerrria batu bear zirala. Eta "itxas-ontzi" ori ondatzera doala uste izan ba'eban be, gaurko ezaugarriak ikusita beste au esango leuke: "Itxas-ontzi euskaldunak ondatzea ez da ain gauza erreza". ■

**OLAZAR'tar Martin'ek**

## PIERRE LAFITTE'N IDAZ-LANAK

### I.- EUSKERAZ

Egiatzko argia (Gure errian).  
Antzerti (lau ekitaldiko antzerkia).  
Julien Heguy apheza: (12 orrialde)  
Eskualdunen lorategia (elertiaren edestia).  
Eleizako liburu ttipia.  
Euzkadi. Bixtan da Espania'n.  
Koblakarien legea (16 orrialde).  
Euskal-Herriaren alde (516 orrialde).  
Kantuz (abestiak dira, 208 orrialde).  
Jesu Kristo'ren bizitza edo ebanjelio ttipia (134 orrialde).  
Azila edo hilen ilabetea (69 orrialde).  
Herriaren aldeko kantuak (lau orrialde).  
Murtuts eta beste. Artho zuritzeko zonbat ichtoria char (55 orrialde).  
Mende huntako euskaldun idazleen pentsabideak (23 orrialde).  
Idek eta zabal gogo-biotzak (72 orrialde).  
Bernardo Gazteluzar olerkaria.  
Herria'n, Gure Herria'n eta Euskera'n datozen lanak: Nola egin den Aldude, Eskualzaleak Al dude'n, Atlantika-Pireneetako ainbeste sinheste zaarrak. Eskuara Kanbo'n, Gonzalve edo ostatu betea, Eguberri-aroa eskual-

dunen ohiduretan, G. Lakonbe, Rene Lafon zenaz zonbait hitz...  
Orratza, antzerkia.  
Sarea, antzerkia.  
San Frantses, antzerkia.  
Chalbaten merchika-ondoak, antzerkia.  
Eguberri, antzerkia.  
Maritxu, antzerkia.  
Merkatuan, antzerkia.  
Amerikanoa, antzerkia.  
Mirikuan, antzerkia.  
Illargia, antzerkia.  
Oyartzunak, antzerkia.  
Hil biziaren ordenua, antzerkia.  
Menex Echamendy (1873-1960) (244 orrialde).

### II.- FRANTSESEZ

Gure Herrian beste oneik, frantsesez: Arana'tar Sabin'en bizitza, Oyhenart'en bizitza, Euskal-olerkigintza, Jean d'Etchberry olerkari, Salvat Monho euskal-olerkari, Euskal-erletia Uztaritz'en eta Sorbona'ko itzaldia: Euskal-ikasketen gaurko egoera. Eta beste 12 idaz-lan.  
Frantses'ez Aldizkarietan

---

# BIDUTZIA TXINGURRIEN KAPARDIAN

## (SU-INGURUA, IPUI-GIRO)

---

Mendian barrena txango goazela edo-ta nun-naiko ibilbidetan gabiltzala, sarri ikusia dogu tokian txingurri-illera luzca, lerro-lerro, joan-etorrian ezkutuzko lur-zulo ta barrunbe batera ostotxo, erbatz ta bideko zernaitxoak narrazean eroaten. Arian eta ekiñean **duinkiro** diardute txingurriak, ondarez eta senak eragiñik, menderen mendetan zintzo ta **xaloki** Jainkoa'k noiza baiño len, jasez eta **soin-atalki** berariz jantzi ta gaitu dituan euren bizi-barruti diran txingurritegiak eraikitzen. Biziaren muiña ez baita arnasa soilki, ekintza edo jarduera baizik.

Txingurri bakoitzaren ekarkiña ez da gure ustez aundia izango, baiñan benetan pixutsua izan oi da euren kaizu edo tamañarako. Izan ere, jaso al aibat, beren albideen eiñean garraiatzen bai dute. Ta zeñen ederki ta trebetasunaz, sena joka-lege burutzen dute, **osertza** illundu arte alkar-lana, oso alkarkoi ta kopurutsuak egin bait-zituan zeruak. Danak dagite lan, lañetan banatua, soin bakoitzaren arabera.

Lanaren lanaz egindako lur-barrunbe biurgunetsuan sartzerik ba'gendu, egundoko errixkak eta etxolak, nimino baiñan zoragarriak ikusiko genituzke arriturik. Erabidez egituratutako bizi-jardunlekua bai pitxia! Lasai ta pozik bizitzeko kapar edo auzoak, alajaña! Elurketa garairako betorke negu! Bizi-ari luzea opa dezaiegun!

Bein, batean, orain bi urtetsu, eguraldi **errepelez**, goiz-goizik, egun berria esnatzen, arrausika oraindik, txingurritegi baten albora eldu eta enbor zar batean **ixtaklok** txingurri-talde bati begira ixillean jarri nintzaizuten, (naiz-ta **berdegunerik** gabea) **alor-giro** antzeko edertasun txiki ta lantsu ua miraritutuz. Gertalekua Napparroa zan. Bardectan ain zuzen, ango egoaldeko eremu zabal-biluzi ta egartsuan kokatua, **sapelatza** dotore egatu ta lasai orekatu oi dan laugunean, **txapar eta legarrez** estalitako lur gozakaitz eta **antzu** artan. Begi-neurriz lugorri zan dana. Alaz ere, nene euskal ikusbitarte guztia ikusgarri zeritzaidan. Eta lanean arazotuta begitzen nituanaz areago txundituta.

Adu beltzak erebakia noski, aize **zirimoltsu** ta biurriaren antzera txingurri alegintsuen xulogune zan kapardira urbildu ta ua gaiñeratu etzitzaignun ba

zein-da bidutzi ikaragarri bat, zakarra jit eta itxuraz: luartza (zenbait tokitan **arrubio** edo-ta lupu deituraz ezaguna). Zertatik bizi dan ez dakit. Baiñan **kirats-jario** ta irri isekariz, pizti **errozu** ta erraldoi onek girotutako etxola artan sortarazi zuan etsipena! Ez da berbetan adieraztcrik. Zitalkeri guztia begietan zekarren. Bai, txinpartak zerizkion begietatik. Txingurri aien latzikara, benetako zukurutza nola neurtu? Luartza zelakoa dan jakiteko urbil gaktion bidutzi oni: takua, soinkera alegia, ez da batere lasaigarria eta ezago atsegiña. Pizti onekin ez da txantxarik.

Oar zakio ongi: Arrabeteko-edo gorputz aundiluzean, **letagin** itxurako bi adar edo beso eskerga dakarzki, egiazko izkillugailu, lau anka pare eta atzeko erpiñean, isats mutur-muturrean alegia, aidean dardarazten duan mizto zulatzaille edentsua. Ain jarrera gaiztoko eta ongi armatua datorrenak eraso dezake bai! Eta gure Errian ezagun zaigun **hispanosaurio** edo iru muturreko txapeloker oien antzera, **luartz** onek oldarrez eta gorrotoz eraso zion txingurrientzako ustezko **gotortegi** ziuerra zan errixka politari. **Kontraeutsia** eziñezkoa zan! Txingurritegian aldizka dagiten zaintzarakoa, guraritxo edo ertzain **umankorrak** berberak ere, etor zekieken edozein oldarketari bekoki emateko prest zeudenak, ezin izan zuten erasoaldi ua ez ekidin, ez saieztu ustegabeko bidutzi aren indar-ekintza. Jauna, zakizkie onbera! Dana alperrik. Ez bait-zuten iñundik sorospenik lortu.

Mundu txiki ontan gertatzen ari zana ikusirik, neroni ere illedia **trikutu** zitzaidala esatea zillegi bekit.

Nolabaiteko ordara joaz eta izuaren izuz igesi asi zitzaizkigun txingurri danak, bai enrule, eme ta iñudeak curen umeekin eta baita arrak ere unetxo artan bertan soiñean bizkarka etxerako zeramazkiten orni-jaki goxo ta joriekin. Pizti madarikatu alena! **Aztoratu** ta ikaraturik ua sakabanaketa txingurri ezkor aiena. Ua ondamen ta **txeamena!** Isaska ta **atzaparka** zer etzigun aberexka gaizto arek egin! Etxolak **menik** gabe jaurti, zapaldu, soberakin eta gaindikiñen gordeleku ziran **aletegiak txirtxillatu**, barnebideak apurtu ta lokatu... Ta ez oni bakarrik! Aletegiak eta etxolak bota-ala jan egiten zituan.



*Luart.ak ondamendi dakartse txindurriai.*

**Milixgarri** ta jaki **aboragarri** guztiak osorik iren-tsirik sabeleratu ta gosea berdindu ondoren, luartzak egiten zizkigun aupatz eta par-algarak itzez zelan adierazi? Aren karrask-otsera areago kikiltzen ziran bizirik irtendako txingurritxoak eta izua bikoizten. Eta **itailarien** eragiñen soroetan galburuak jausten diran eraberean erortzen eta betiko loan suntsituak gelditzen ziran burubeltz aiek, benetako beargin nekagaitzak.

AZKENENGO ARRAIÑA JATEN  
DOZUNEAN AZKENENGO  
LANDAREA IGAR'1'ZEN DANEAN,  
ORDUAN, **BAI**, ORDUAN JAKINGO  
DOZU DIRUA EZ DALA JATEN

(**AMERIKETAKO INDIARREN** ESALDIA)

Ondamendia egiten asirik **luartzak** keiñu lizunez esan-irudi zuan: "Ez naiz deabruren bat, ni ikutzen nautenentzat ilgarri eta eriotz-ekarle baiño. Eztentsu ta mendekatzaille naiz, bai! Bizi-pozik gabe bekaitzez begiratzan diot zuen lan etekintsuari eta dana aozpez eta errausten ikusi arte ez dut ezer barkatzen. Ni basamortuko ondarretan eta arrien azpian gosez eta beti igesi ibil-bearrak zorazten nau".

Zorilatzak darama txingurri-taldea. Bidutzi au beldur-uiñak sorteko gai baita. Nola ba neurtu txingurri sarraskituen oiñazea? Mundu ontan zoritxarrez

ez dago zutik irauterik nolabaiteko erasoketarik gabe eta erronka zantar bati erantzuteke. Au dala-ta, **onatx** zer gertatu zan geroxeago.

Ba ziran bertan miñik artu gabeko bi txingurri kementsu, euren barru-deia entzun eta bizilekua ziñez maite zutenak. Zurztasun gorrian, sen ezkutu batek eragiñik, txingurritegiari zer gerta zeikiokean antzemanazarren, barrengo sutegia txinpartaka ari zitzauela, sarraski tamalgarri ua deitoratuz, euren kabuz, bipilki ta bikor auxe erabaki zuten: naiz-eta izkillurik etzutela jakin, etsai ondatzaille **putzillari** ber-bertatik aurpegi ematea.

Euren adimen aberekoian asmoa garatu ta zoriturik, ilbiziko ein ontan, **kostala-kosta**, bizia bizi-truk, ekin zioten xedea aurrera emateari. Txotxabar eta ondarrarritxo soilki armaturik, usteontsu bidera irten zitzaizkion bidutzi aundi arri. Barne-muiñak irakiten, soiñez-soinkako burruka, egiazki, Dabid eta Goliat'en antzekora, oso motza izan zan. Loretan dago **esperantz**a.

Luartzak etzuan uste iñor jarkiko zitzaionik eta lasai ziarduan dana **amiltzen, desorekatzen** eta ondatzen. Augatik bikote aren erabateko ausardia ikusirik zearo koldartu zan. Nundik jo etzekitela zeuden txingurritxoak. Eta "Akiles orpoa, une zuri-garri" piztien begietan zegoela salbamena erabaki zuten. Begietara jaurti zizkioten arritxo eta **iraizki** guztiak. Txingurritxoak asmatu zuten, ondo asmatu alajinkoa! Estieragin zioten, **utikan** madarikatu ori!!! Luartza, etsi-etsi egina, zetozkion ezpalki eta zerki guztiari igeska, bere burua eta begiak gorde nairik, **orpozipurdi** anka bizi eragiñik aldendu zitzaigun ezkutune ta babes-aterpe billa. Bi txingui7-i auen antzeko beste asko etziran **peit** eta danen artean bukatu zuten eginbearrekoa.

Erren ta zagaildurik, soro legartsuan barrena anka guztiari alegiñean eraginda ikusi ornen zuten txingurrieme adintsu zarrenak.

Inguru aietan etzan onelako bidutzi ankerrik berriro azaldu.

Arrixkua **aizaturik** gelditu zan. Txingurri-talde ordea oso murriztua. Kalteak negartu ta konponbi-deak jarririk, bizirik irtenak, zearo zuzpurturik, eldu zioten baretasunik paketsuenean euren betiko arlo zeregintsuari.

Txingurriak onela **darraite** eta gaurtik aurrera ere onelaxe jarraituko dute, lanean, alkargiro pozgarrian, danen bizi-zuzia itzali arte edo-ta lurrak lur **diraukeño**.

EGAÑA'tar GOTZON  
Osintxu'k



# LEGE ZARRA (FORUA) (III): JAUNA

Legeen artean lenengoa ta beiñena aginpidea daukana legepean egotea da. Aginpide orrek naikeriak erabilteko erea ba'dauko ori ez litzake Jauna izango, agintari ankerra edo tiranoa baiño. Gaur laterri guztietako Lege Nagusiak esaten dau Agintaria legepean dagoala. Foruak ori ez eban esan egiten. baiña orren ondorena lortzen zan zin egiteagaz eta foru-baimenagaz.

## ZIN EGITEA

1452n. urteko foruaren 1º aginduak, antxiñako ekandua gogoratuz, Bizkai'ko Jaunak, 14 une beteta ba'daukoz berberak Bizkai'ra etorri bear dauala eta emengo lege bereziak. oiturak eta ekanduak zin egin bear dauzala diño. Eta au gaiñera: Ez ba'dator. Bizkai'ko uri naiz errietako bizkaitarrak ez daukela jaun orreri zerga ordaindu -bearrik eta gutunak hete-bearrik be ez, arik eta zin-egitera etorri -arte.

Agintariak lenengo egin bear dauana. legepean dagoala eta forua beteko dauala zin egitea da eta ori aundikiro egin bear-ko dau lenengo Bilbao'ko ateetan, gero Larrabetzu'ko Emeterio ta Zeledonio deunen eleizan, gero Gernika'ko zugazpean eta azkenez Bermeo'ko Eupeme Deunaren eleizan.

## DENPOREA IRAKASLE ONA DA BAIÑA IKASLE GUZTIAK

### IL EGITEN DAUZ

Ara zer diñon Isabel Katolika deritxonak beronen ziñean: "Jaingo Jaunari eta Andra Maria Birjiña, onen amari, erri eta uri orretako Erregiña ta Andere lez (zin dagiot) orain eta betiko lege bereziak, foruak, oiturak, ekanduak, aske-bideak eta askatasuna beteko dodazela konderrri ta jaunerri onetan. Enkarterria ta beste lurraldeak barru dauzala". Eta beste errege guztiak be antzeko ziña egiten eben.

## FORU-BAIMENA

Asmoak agertzea, asmorik ederrenak izan amen. eta asmo orreik zin egitea ez da naikoa. Gero Agintariak neurri edo kontrol batzuk bear dauz asmo orreik eta ziña beteten dauzan ala ez argi geratu daiten. Eta ori ez eben aitzu bizkaitarrak. Orixe da foru-baimenagaz lortu nai dabena. Ara legeak diñoana zer dan:

"Iln. legea (1º idazpuruan): Askatasunaren aurka datozen gutunai men egingo jake. baiña ez dira betetuko.

Beste au be esan eben: Foru, lege, aske-bide ta askatasun lez eukela, Bizkai'ko Jaunak bialdutako gutuna edo errege-

legea, dana dala, zuzen naiz zearka, Bizkai'ko lege edo aginduen aurka ba'litz, men egin dakiola eta ez betetu".

Zer esan nai dau "men egin eta betetu ez"orrek? Agindu orrek ez dauka iñoz izango ondorenik. Jaunaren jabetasuna aintzat artu bear da, bai, eta orregaitik men egiten jako, baiña gutunak barruan diñoana ez da betetuko, ez dau eukiko eze-lako ondorenik.

## ZUGATZ BAT SARTU DAUANARENA EZ DA ALPEREKO BIZITZEA

DANTE

Eta ori jazoten dala. foruaren aurka dagoala agindu ori, nork esan bear dau? Batzar Nagusiak, Gernika'ko zugazpean. Errege-aginduak guztiak ara croan bear dira eta an lortu bear dabe foru-baimena, antxe artu bear dira legezkotzat, antxe esan bear da foruagaz batera datorren ala ez. Eta agindua ez datorrela foruagaz batera ebazten ba'da, jakiña, men egin eta betetu ez.

Foru-bide onek eztabaida eta estutasun aundiak sortu ebazan bein baiño sarriago, baiña, zalantza barik, foruak itzaltasunaz begiratzeko ziurtasun bat zan.


Eta Errege edo jaunentzat be ez da iraingarri. Zer gauza ederragorik errege edo agintariarentzat, erriak bere baietza arduraz eta askatasunaz emotea baiño? Orrela ulertu eben ori erregeak Bizkaia'ri begira. II Felipe berak diño bere semearen alde egin eban azken-naian: "Bizkaitarrak asko maitatu dagizala eta curen askatasuna ta foruak zaindu dagizala, ori egin ezkeru eurak oso zintzoak, menpekoak eta erregetzarentzat bearrezkoak diralako".

Amaitu baiño len itaun bat egin dagigun: Eta eleizearen aldetik etorten ziran agiri ta aginduakaz zer egiten eben? Iñoz ukatu eben foru-baimena, baiña geienetan ez zan bear izaten olakorik.

Geroago. Frantzia'ko matxinada aren ondoren, dana bateratzeko jokerea agertu zan eta orren ondorena izan zan formen antxiñako jokabidea apurtzea eta ortik sortu zan ardatzko agintariakaz artu-emonak garrartzutea. Emen gogoratu zertarako izan ziran karlostarren gudak. zer jazo zan Bergara'ko Besarkada aren ondoren eta zelan joan diran foru orreik banaka kentzen, ekonomi-arloko ituna oraindiño be bizi dala. ■

OLAZAR'tar Martin'ek

## JAIME KEREXETA'RI OMENALDIA (Elorrio'n 2001, orrila-bagilla)




*Kerexeta'ren irudia itzaldi-aretoan, erakusketan, irarkietan eta zabalkunde osoan.*

Egin jako Jaime Kerexeta'ri ondo merezia eban ormenaldia Elorrio bere errian, antolatzaileak bertako udala, Berriketan bertako taldea eta Gerediaga alkartea zirala, orrillaren 12'an asi eta bagilla 3'ra bitartean.

Zor jakon olako omenaldia Jaime euskal-idazle eta eleiz-gizon ospetsu oneri eta Euskarazaintza Euskerearen Erri-Akademiak ba-eukan olako ekintza bat beteteko egitasmoa, baiña azken-orduak sortutako eragozpen batzuk atzeratu egin eben. Dana dala, egin da omenaldia eta ondo ta egokiro egin be.

Lenengo entzun gendun berbaldia, gure lurraldean Gotzain-Ordezkarik dan Untzueta'tar Anjel Mari'k emon eban eta bere gaia au izan zan: "Euskerea ta eleizea sasoi illunetan". Ederto agertu eban gure edestia 1936n. urte larrian asi, Gasteiz'ko Eleizbarrutiaren zatitzeagaz jarrai-



*Gaztaroko argazkia abade egin barritan.*

tu, diktadurapeko artegatasuna azaldu eta Zirarda Gotzaiña etorri zanean asi zan egoera barriagaz amaitzeko.

Or barruan agertu eban Jaime Kerexeta'ren egite gogoangarri bat. Bera izan zan arduratua 339 abadek orduko giroari aurka egiteko eleiz-agintariak idatzi eutsen agiria aurkezteko. Orrillaren 30n. egunean izan ori eta oneik izan ziran Gotzaiñak berari erderaz esandako berbak: "Zuri, gizajo orreri, ezarri dautsue agiri au ekarteko zeregiña?"

Gure Gotzain-Ordezkariek gaia, luze, zabal, sakon eta zeatz azaldu eban.

Egun batzuk geroago beste ekiñaldi baten izan giñan kideko: Mons. Karmelo Etxenagusia izan zan izlari.



*Iru olerki-liburu idar-i ebazan Jaime Kerexeta'k.*

Lenengo alkate jaunak cgin ebazan aurkezpenak, gero, bereziago, Mikel Latxaga'ren liburuska aurkeztu eban idazleak berak. Liburuska au oso egokia da, argarkiz eta jakingarriz ondo jantzia. Zori txarrez Jaime'k gorroto eban euskera batuan idatzia da. Ortxe egin gendun beaztopa Euskerazaintzakoak omenaldi au geuk egiteko. Baiña liburuska or dago idaz-lan onegaz doazan argazkietan ikusi daikezuen lez. Lan ederra egiten dau Mikel Atxaga'k Jaurlaritzagaz alkar-lanean olako liburuska asko argitaratu eta gure elertiaren edestian Ickuko izango dira.

Erriko txanburu dan Jon Gallastegi'k aurkeztu eban Mons. Etxenagusia izlaria, itzaldi labur eta biozkor baten.

Gero Mons. Etxenagusia'ren itzaldia. Gaia: "Jaime Kerexeta eta euskera". Beste gai egoki askoren artean esan eban lez, Jaime'k bere bizitzea eskintzeko arlo asko eukazan esaterako olerkari lez, edo musikari lez, edo organulari lez, edo eraldikan baiña guztien gaiñetik berak euskerea eta eleiztarri laguntzeko euskerea aukeratu eban".

...

Ekintza guzti oneikaz batera, erakusketa egoki bat antolatu zan, Lankide Aurrezki Kutzaren aretoan. Giro lasai baten eta musika egokia lagun zala onako gauza oneik ikusi al izan genduzan erakusketa orretan: Bizitzako argazkiak, izendapen gogoangarriak esaterako



*Organulari ona zan Kerexetu. Tui'ko gotzain elei:an i:an ;an hene%i.iadu eta oruganidari, antxe abadet:a artu eta lasto :*

Madrid'en Eraldika-arloko erakundeen bazkide, Euskaltzain urgazle ta orezko, musikalaria eta abar. Kerexeta Euskarazaintzan kideko osoa zan naizta batzarretara etorten zalca izan ez, baiña ez da agertzen izendapen ori. Kardaberaz taldekoa be ba-zan.


Bigarren arlo baten, Kerexeta'ren 55 bat liburu agertzen dira. Guztiak uste dot: Olerki-liburuak, eraldika-arlokoak, itzulpenak eta eleizburuak. Guztien artean nagusi Euskal Biblia bizkaieraz dala dirudi. Ondo antolatua erakusketa au eta ederrago izango zan emen agertzen dogun bere argazkia an egon ba'litz, baiña au itzaldien aretora eroanda egoan. Oso ederra da.

Omenaldiko egunik aundiena azkenengoa izan zan. Kerexeta'k artzain arloko izendapenik ez egiteko eta bere lana eleizeari euskera-laguntza emotea izango zala esan eustson Gotzaiñari, baiña Mons. Zirarda'k Elorrio'n dan

San Agustin'go txanburu izendatu eban eta urteetan bete eban ardura au bere euskal idaz-lanak egiñez.

Orregaitik, bagillaren 3n. egunean San Agustin'en egin zan azkenengo ekiñaldia.

Goizeko amar eta erdietan asi zan Andoni Gerrika-Etxebarria Gotzaiñaren ordezkoa buru zala meza santua abes-batza lagun. Gero omenduaren aritzaren ondoan oroitzapen-plaka bat ezarri zan. Errebonbillo batek aureskua egin eban eta amaitzeko ekitaldi akademikoa izan zan.



*Eruldika-liburuak.*

Anai-arteko izki-mizkiak jatera urreratu giñan orretarako deituak giñanok. Eskerrik asko.

Olako omenaldiak oso egokiak dira gure edestia egokiro idatzia izan daiten lekuko lez. Zoriona eratzailleai eta Elorrio eri zintzo ta euskaldunari. Batez be omenduaren sendiko guztiak.

**OLAZAR'tar Martin'ek**

## ELORRIO HOMENAJE A JAIME DE KEREXETA

LOS HABITANTES de la villa de Elorrio van a tributar un merecido homenaje a don Jaime de Kerexeta, ilustre elorriarra desaparecido hace ya unos años que ahora quiere ser reconocido por diferentes estamentos culturales y euskaldunes, sabedores de la significada trayectoria de este investigador, etnografo, estudioso escritor y poeta, pero sobre todo defensor a ultranza del euskera vizcaino.

Esta semana de actividades fue inicialmente impulsada por el colectivo defensor del euskera, Barriketan que inmediatamente

conto con el apoyo del Ayuntamiento de la villa y de Gerediaga ademas de la Dipuracion Foral de Bizkzaia, el Gobierno Vasco ademas de Euskaltzaindia y el Instituto Labayru.

El calendario de actividades comenzo el sabado con un concierto coral y proseguira este viernes con la conferencia "Euskera eta eliza sasoi ilunetan" a cargo de Angel Maria Unzueta. Dos dfas despu s se inaugurara una exposicion en la sala de la CLP. El mi rcoles 30 el obispo auxiliar de la Diocesis de Bizkaia, Karmelo

Etxenagusia hablara de "este investigador y su trabajo a favor del euskera". El uno de junio miembros del Euskaltzaindia disertaran de la gramatica euskaldun. El tributo postumo al traductor de la primera Biblia al vizcaino, "algo que fue una gran revolucion en un momento en el que incluso el euskera estaba prohibido", concluirea el tres de junio en la antigua anteiglesia de San Agustin de Etxebarria, de donde don Jaime era parroco. L.M.

**DEIA 2001-(05-24**

---

# ABENDA-ZALE NAIZ, BAI!!! ETA EUSKALDUNA, SUSTRAIETARANO

---

Mikrofonoz eta argazkin-tramankuluz orniturik, jendeari mintzaerazteko, kalean nun-zer-berri billa ibilli oi diran izperkari zirikatzaile oietako batek, ustekabean urbildu eta irriparez erdal galdera au egin zidan:

– **Es Vd. vasco? Eta** nik: **bai euskalduna naiz**, sí soy vasco (aunque esta vieja y hermosa palabra trae consigo algo de ripio e interrogantes de dudoso aplauso y me excita, pues la repiten para sí mismos hasta Redondo y Rosa Díez, a quienes les importa un rábano el mágico, humano y hondo contenido del vocablo).

Ondoren, izperkariak au jaurti zidan:

– **Enda-zale al zera?** Eta nik ari, euskeraz ere, euskaldun naizenez eta abertzalea, BAI!!! erantzun nion.

Baiñan zer gertatzen da gaur? Konkistatzaileen erruz maiz, eremu edatsuko bizilagun ainitz, politikoki eiotu gabeak eta erbatzez beteak, garatu gabeko kultura modernurik ezagutzeke eta azpiegiturak zein garrantziko diran jakin gabe, gosete gorrian ari zaizkigu erortzen. Ekimenik gabe eta irrika-izpirik gabe, urrutitxoan eta aurreratuen ustezko biziera guriago eta atsegiñera eldu nairik, gizarte "andiki" zenbaiten zorionleñuruz itsuturik edo-ta ajen bizipoz errexaz bekaizturik, "zorion-errape" berri billa azken auekin hizikide izan nai dutela jalo-lurra ulzirik, itzez ezezik egiñaz adierazi digute, baiñan nola? Ementxe dago kokka. Mundua danena dala ukatzerik ez ligo eta munduan

---

### Gure idazleai:

**Aldikari onen idazkolakoak biotzez eskerrak emoten dautzueguz idazleai.**

**Idaz-lan guztiak argitaratzen doguz atzerago edo aurrerago. Gaur Egaña'tar Gotzon'en idazlan bi argitaratzen doguz. Eskerrik asko, Gotzon!**

---

### IDAZKOLAKOAK

---

Enda-zale naiz nere ikuspegitik eta nere gardiz. Mingaiña askatu zitzaidan eta nere iruzkin batzuk erantsi nizkion.

Edesti-aurretiko leen-aldiak ezkerro, zubipetik ur aundiak joanak dira. Jainkoak soin-gogoz, ar-eme tankeratu ginduan eta adi-argiz jantzi. Biotzondoz danok berdintsu, tokika larra-kolorez eta azpegiz pitin bat bereizirik. Gaiñera esku trebez oretu ginduan, lurrari bere ezkutuzko elika-altxorra, batez ere, atereaz, janaritu ta ase gindezken. Belaundik belaun, gizataldeen, errien eta leiñuen elburua zorion-bidea topatzea da eta izan da beti, norbere bizitoki ta lekuan,jakiña.

Euskaldunok, kristau geranez, nun-naiko gizabana-ko txuri, beltz, ori... zorientsu ta lokabe nai ditugu.

zear ibiltzea ta nun-nai egoitz artzea ere ez, bai baitago naiko eremu uts eta aberats eta baita jakinbide-eskolak ere askotxoan biziera obetu daitezkenak. Kultura ezberdiñen talka dugu, garrantzi aundikoa. Bizikidetasunean apailatuz, ulermenera, arrazoibidez eta demokratikoki soilki iritxi giñezke. Ez da beste biderik.

Euzkadi'ri dagokionez, iru milloiren bat biztanle egoki ar ditzake gure lurraldeak. Ez dugu esango gure eusko lurra oso emankorra danik, ezta beste mundutar guztiak baiño langilleago geranik euskaldunok, bai baiño bertakoen lanez, ekin eta izerdiz Euzkadi txiro zana lur bizigarri eta asegarri gertatu dala eta gaiñera kanpotar askorentzat erakargarri ta xpillu.

Amarren bat millaka urtetan, noizkotu ezin dugun gure endaren izkuntza betikoa dan euskera galtzairutu,

gandu-matasa goibel artean gure ondare giartsuari irau-nazteko alegin eta len-en aundi-aundiak egiñak ditu, zenbait auzoko erdal erasoai eta etsai bekaiztai burruka odoltsuan jarkiz.

Bi millagarren urte aurreratu onek gauza ainitz eta ederrak ekarri dizkigu. Eta berripen oien bitartez jakin-erazi zaigu ez dala mundu osora eldu gure ekiñaldia, ez dala aurrerapen-izpirik dastatu ere, eta zearo orekagabaturik bai dago gizatalde ostetsuen kaltez. Eta zer da bizkarrera datorkiguna eta begietara azaldutakoa? Gizarte erdiaren mixeri galanta!

Gure euskal industri-lanetara, lurretara datorkigun gizakume beltz txiroa zapuztu eta uxatzea zillegi al da? Ugoldeka (eta sarri arrixkuz betetakoa itsasoan zear) estadu-mugak gaudituz txurien ustezko paradisu billa eldu zaigun mundu beltzeko zatar eta ezjakiña deritxaigun orri, ateak itxi bear al dizkiogu? Mundua ordea ez da zeru eran antolatu eta arazo eskergak ditugu muga-ateak zabalik eukitzeko ta "aterpeak" atontzeko.

Betidanik urte luzetako gudu gorrietan ibilliak gera gizakumeok eta agirian ditugu ondorioak: egundoko txarkeriak, genozidio izugarriak, ezpataz ezezik gurutzez ere egiñak. Danok gera errudun, Estadu aundi ta arroak batez ere, konkistatzaileak eta inperialistak danen gaiñetik. Irabaz guraz ziarduten. Urteak eta gizaldiak alkargainka igaroarren, sasi-zibilizazio eta gurutze-aitzakiz egindako guztia inpernuko su-eragiñez burutua dugu, intzentsu eta gotzai-bedeinkapenez egiñik dagoala sinistarazi nai ba'digute ere. Eta ain gaizki egindakoak nola konpondu? Au bai ixtillu larria!

Estadu bakoitzak, aberatsak batikbat, zentzuzko politikarien bitartez gaurtetik artubearko lituzke okerra al dan bestean zuzentzeko neurriak. Baiñan, kontuz! konkistatzaileak ez ditzagula iñoiz eredutzat eta jarraibidetzat artu, ezago inperialistak. "**Bidegabeke-riaren ama da agintarien aala**" idatzi ziguten gerkarrik. Politikak du emen joku erraldoia, errien naia nun datzan ikusteko. Atzeraka asten dan erri zainilla suntsitu egiten da, erabat esateko. Askatasuna da mundu ontan me zaiguna. Norbakoitzarena eta erriena. Estadu aundiak eskeiñi ditzatela beren edertasunak, aberaski eta lurak eskale, erbesteratu ta zanpatutakoi.

Erdalikeriz kutsatutako girorik ez dugu nai. Gure izanari, izakerari ta Erri berezi bezela Euzkadi k bere izate-baitan daraman zantzu guziari ez diogu beñere uko egingo, eta euskaldunen erabakiak errespetatuko dituztenak bakarrik onartuko ditugu eta anai berrizat besarkatuko, bestela gutxietsi eta etsaitzat joko, one-lakoak zankarteka aritu, aritzen eta arituko bait-zaizkigu asmo txarrez eta etengabe. Beraz, galbaiketa zuzena izan bedi iñor iraindua izan ez dedin. Ez

gaude ametsetan eta oraingo politika-ideiak burrunbaka ari ba'zaizkigu ere, amets urdin oiek zoritu eta gauzatuko zaizkigula ta gure Euzkadi baretuko ziur egon gaitezke.

Orreaga'n Karlomagno'ren gudoste ausarten aurka burrukatu ziranen ezpaletikoak gaituzue, gogoz eta kemenez. Izan ere, itzik jaso gabe ez dugu edozein margotako atzerritar-aparren menpean iraulka erori nai bizi-uberarik uzteke. Joputasuna txintik jaso gabe jasaten duan erria ez da aske izateko duin.

Gure idetasun zati nagusi ta españar ez geranaren adierazgarri EUSKERA dugu, gaur arte ainbeste izkuntz galduen arte alatean. Izkuntzak, bai!, bereizten gaitu euskaldunok prantziar eta españarrengandik. Euskera erdal-izkuntza edo izkelgi ba'litz, Mosquerak eta Sanz'ek bezelako hispanosaurioak itzegingo ote liguteke mintzaten diran eran euskeraren garatze ta abalkuntzaren aurka? Euskerak, bai, zereztu egiten digu gure abenda edo etnia.

Ez latiñaren ez beste izkuntz kimurik ez duten bereizgarri auek ERRI egin ginduten. Antziña-antziña-ko arbasoek bategin gaituan etengabeko kate luzean zudu aundiko katabegi gera ogaitabatgarren gizaldi ontako euskotarrok. Eta onek benetan poztu ta arrotzen gaitu.

Begien almenaz araindi datozkigu "**iñoren seme ta ezeren alaba**" beltz eta oriak. Danak gosez iñudetu ta eradoskiak. Guk ez dugu iñor zotalean etzanik gosegorriz ikusi nai. Ezta astigar itzaltsu erlatzean iñor topa gura. Ezago oraindik merkatuetan salgai iñor begiztu. Ez-eta lantegi, oletan eta meatzetan ugazaba diruzaleen mendeko. Ez dugu iñoren uztarpeko izan nai, ez-eta iñoren menderatzaile. Osorik euskaldun on izaten jarraitu nai dugu.

Au guziongatik, kolkopean eta teoriz eta senaz beintzat, euskal endazale naiz. Eta euskalduna erroetaraño, odolez, jatorriz, abizenaz, jaiotzez, izatez, azibidez eta abertzaletasunez, kanpotiko adabakirik gabe, batere gabeko nasketarik eta migurik gabe. Gure egoko eta iparraldeko estadu politiko zapalgarriekin puskatu nai dugu, gure kaltean ari diranengandik urrutiratzeko esaten bait digu zentzunak, gizabideak eta baita kristaujoerak ere.

Mendetan barrena zauriz eta orban-aztarnez gure gorputz eta animak bete dizkiguten gure auzoko estadu zurrupariok ikus gaitzela noizpait bañan lenbailen pake-orekan eta lanean ERRI jarei bezela gure aalbi-dez eta jardunbidez bizitzen euskal giroan, oitura ta kulturatan txertatutako etorkin zintzoekin batera. ■

EGAÑA'tar GOTZON

# URKIOLA ARRIGARRI III: ARRENTZAK

Gitxi dakigu zelako fede-bizitza euken lenengo gizaldietako gure kristiñau euskaldunak, baiña susmagarria da bizitza orretan garrantzi aundia eukela baseleizak eta santutegiak.

Bear ba'da lenengo gizaldi orreitan, lenengo milla-urte osoan, oraindiño ez zan oiturazko gauzea igandero mezea egitea. Bakaretxeetan bizi ziran eta urrean ez egoan ez mezarik ez ebaderik. Antxiñako gauzea bai ba-dala ermita bakoitxean ermitaño edo serore bat eukitea eta onek kanpaia jotzen eban etxeetan otoitza egiteko. Etxeko amak zuzentzen eban otoitz ori. Illetak be egiten ebezan eta illak ermita-barruak illobiratu. Irugarren gizaldia amaitu arte gorpuak erre egiten ziran eta gero gorpu osoak illobiratu.

Laster indarra artu eban beste aintxiñako gauza bat arrentzak dira. Baseleizen artean batzuk ospe bereiztia lortu eban, santutegi biurtu ziran, eta ara urreratzen ziran arrentza egiteko. Olakoa da antxiñako agiriak diñoen lez, Jainko'ko eleizea Mungialdean. Arrentzak baiño geiago be bai: Jainko'ra joaten ziran inguruko errietatik bederatzi-urrenak egiteko. Eta olako ekintzetan udal-etxeak be laguntza emoten eban.

Eta zergaitik egiten eban arrentza ori? Batez be izurriak edo peste "ak sortzen ziran, eta ori sarritan jazoten zan. Oraindiño bizi dira olako egoeretan egiten ziran "promes" batzuk, esaterako Arrieta'tik Gastelugatxe'ra oiñez joaten dira San Ignazio egunean. Bildurgarria zan izurria, bear ba'da Jaungoikoaren zigor lez artzen zan eta parkamena lortzeko, penitentzi lez, egiten ziran arrentzat.

Izaten ziran beste zio batzuk be: legortea zanean curia eskatzeko, eurite aundiak ziranean aterria eskatzeko, pekaturen bat autortzen ebenean oben-neke lez eskatzen eutselako eta abar.

Arrentzak egiteko oitureak bere pentsakerea agertzeko eskubide osoa bear dau eta fedeari eusteko bide egoki bat izaten da batzutan au.

Urkiola'ra arrentza egiteko oiturea be oso zarra da eta inguruko errialde guztiak edo erriak bakarka euken oitura au.

Zeanuri'n abade izan nintzanean, 1970-1980 urteetan, urtero joaten giñan arrentza egiten Urkiola'ra, batzuk

oiñez, beste batzuk berebilletan edo autobusean. Ordu izendatuan beko ermitean batzen giñan eta oiñez arrentza abestuz urreratzen giñan Santutegira. An alkar-penitentzia egiten zan eta gero mezea. Meza-ostean asko inguruko zelaietan batzen ziran bazkaltzeko, beste batzuk jate-xera joaten ziran. Guztiai Udal-Batzak neurri bat arda emoten eutsen.

Baiña urte orrek urte txarrak izan ziran erri-giroari begira eta giro larri onek bere ikutua euki eban arrentzaren arloan be. Parkatu beiste irakurleak jazokizun bat, apur bar zeatzago, agertzea.

Urte baten nik ezer be jakin barik errian iragarkiak ikusi nebazan Urkiola'ra arrentza iragarteko. Urrengo igandean eleizan esan neban arrentza parrokiaren gauzea dala eta iragarki orreitan agertzen dan egunean ez zala egingo, esango dan beste egun baten baiño. Asarre aundia artu eban erriko arduradunak eta abade laguntzaille

biri eskatu eutsen arrentza orretara joateko. Batak ezetz esan eutson, ezin dala joan m-lia familiko ezkontza batera joan bear ebalko egun orretan. Ori egia dan jakiteko, etxe orretara eguazilla joan zan. Bai egia zan. Eta besteak, Undurraga'ko abadeak, arazoa parrokoagaz konpondu bear zala esan eta orretarako alegiña egin eban, baiña ez eban lortu. Orduan alkatea Urkiola'ra joan zan eta

## IRU GAUZA DAGOZ ESKUTATU-EZIÑAK:

MAITASUNA,  
KEEA

ETA GANBELU-GAIÑEAN DOAN  
GIZONA

ARABIA ARREN ATSO TITZA

Manuel Estomba'ri eskatu eutson arrentzan abadelana eurak egiteko, baiña nik aurretiaz jakitun ipiñi neban D. Manuel eta onek ezetza emon eutson, arrentza parrokoak eratu bear ebala. Ez zan egin egun orretan baiña bai beste egun baten. Jakiña, udal-batzak emoten eban arda-neurria ez eban emon. Oitura orrek oindiño jarraitzen daua la uste dot.

Arrentzak erriaren fedeari eusteko bide bat dira eta guk ez doguz ondo ezagutzen Jaungoikoaren bideak. Bear ba'da igandetako mezea errez izten dan sasoi onetan olako ekintzak izango dira fedeari bizirik irauteko era bat. Dana dala, ondo esana dala deritxak gure Legartza adiskideak diñoanari: Ekintza oneik parrokiatan eta santutegian ondo gertatu bear dirala. ■

**OLAZAR eta URIBE'tar Martin'ek**

## ANBOTOKO DAMEA (5n. SARIA)

Artzain bati bein ardi bat galdu jakon, eta Anbotoko Damearengana joan zan ardi-bila.

An egoan Mari Urrika koba aurrean jesarrita urrezko orraziaz bere buruko ule beilegi kizkurrak orrazten, eguzkia artzen eban bitartean.

— Egunon, Andrea, -asi jakon artzaina agurtzen.

— Bai, egunon zuri be, artzain gazte. Ondo etorria izan zaitez. Zer dala-ta ain goizetik alde onetatik?

— Ardi bat galdu jat eta aren atzetik nabil. Zuk ikusi dozu?

— Zatoz neugaz, artzain gazte, eta neuk erakutsiko deusudaz nire erreinuko arrigarriak, galdu dozun ardi ori baino mila bider ederragoak.

Eta Anbotoko Dameak artzain gazteari eskutik eldu, eta sakeletik urrezko giltza aterata, artzain gaztea koba barrura sartu eban.

Artzain gaztea an barruan ikusi ebazanakaz liluratirik, zoraturik geratu zan.

Ango basoetako aize ozkirri, me, fina!

Ango lorategi mila kolorez jantziak!

Ango txorien abesti zoliak!

Ango landa orlegi, zabalak!...

Landa erdian iturri bat egoan, bere ur garbi, ugarria bor-borka zerurantz isurtzen.

Eta iturri inguruan biraka Maitagarriak dantzan, eguzkiaren errainuekin olgetan.

Iturriak Lamindano eban izena, eta andik edaten ebana, bizitza guztirako maitemindurik geratzen zan.

Maitagarriak, artzain gaztea ikusi ebenean, iturriko arripeetan ostendu, eta andik kukuka artzain gazteari begira-begira eta abesten asi ziran:

ITSASOA LAIÑO DAGO  
BAIONAKO BARRARAIÑO.  
NIK ZU ZAITUT MAITEAGO  
ARRAINTXOAK URA BAIÑO.

Suge zitalak, txoritxoak ikusiz, bere begi sorgin-  
duak zorrotzen deusazanean, txori koitauak, lilura-  
turik, ezin dan sugearen begi zorrotzetatik iges  
egin...

Artzain gaztea be bardin, Maitagarrien maitemi-  
nezko sareetan loturik geratu da, eta ezin dan iges  
egin.

Artzain gazteak goiz osoa Maitagarrien kanta eta  
maite-ipuinak entzuten emon eban:

MAITAGARRIA ZARA  
EDER ETA GAZTE.  
NIRE BIOTZAK EZ DAU  
ZU BESTERIK MAITE.

BIOTZ BATEN LEKUAN  
MILA BANITUZKE,  
MAITEA, ZURETZAKO  
IZANGO LIRAKE.

---

ZUGAZTIAK ERRIAK BAIÑO  
LENAGOKOAK DIRA  
BASAMORTUAK ERRIEN OSTEAN  
DATOZ; ZUGAZTIAK GALTZEA  
GIZONENTZAK ZIGORRA DA.

CHATEAUBRIAND

ETA Maitagarriak euren artean barriketan asi  
ziran: Badakizue? Ez dakizue?

Errotabarriko Erromaldoren semerik gazteena,  
Aldanondoko Katalinekin asi dala ibiltzen? Gaztee-  
giak dira, baiña...

Iturraldeko mutila Ameriketara el doa, gero emen  
ezkontzeko diru apur bat egiteko. Ez ete dau an urru-  
nean emengo maitasun zarra aztuko?

Olaburuko mutil zarra, Pagoaldaiko alabarekin  
ezkonduko dala, diño. Ezkontza orretan diru usaiña  
be badala, uste dabe.

## IPUIN-SARIKETA

Eta Iturriozko Pantxikegaitik zer esan? Maite dauan mutilagaz ezkontzeko ez el dauka gurasoen baimenik, eta bere etxe barruan sartuta, negarrez urtu bearrean ei dago.

Onango txutxu-mutxuak amaitu ebezanean, Maitagarriak artzain gaztea besoetan artu, eta Plaut!!! iturriko uretan murgildu eben. Eta artzain zoriontsua oinetatik bururaino guztiro maiteminduta geratu zan, eta artzain gazteak ez ekian beretzat ezkontzeko zein Matagarri aukeratu.

Bata polita bazan, bestea ederragoa.

Urrengo egunean goizean-goiz artzain gaztea Anbotoko Damearen kobara arin-arin joan zan.

An egoan Mari Urrika artzain gazteari itxaroten.

– Egunon, Mari.

– Baita zuri be, egunon, artzain gazte. Zer jazoten da? Gaur be beste ardiren bat galdu jatsu?

– Ardirik ez, Andrea. Burua galdu bear dot.

Gau osoan ezin izan dot lorik egin.

Maitagarriak ibili jataz errotarria lez nire buruan biraka. Zoratu ez nazanean!

Eta Mari Urrikak artzain gaztea ostera be koba barrura sartu eban.

An ebiltzan Maitagarriak gaur be auresku-dantzantxoriak baino bizkorrago, aizea baino arinago, iturriko uraren soinu alaian.

Artzaina arri baten ostean ostendu zan andik Maitagarrirei obeto begiratzeko.

Eta, Ene lilura ustela!

Ene ames galdua!

Maitagarrien oinak ez ziran emakumeenak, arraienak baino! !!

Artzain gaztearen amesak, danak trokara!

Eta artzain gaztea, gizagaixoa, maitasun egarriz itota, burua galduta, biotza urtuta, Al ene!!! deadar luze bat eginez, lurrera, konorte barik lurrera lotz jausten dan lez...

Alan gure artzain gaztea be

Maitagarrien begien aun-ean maiteminak jota lurrean luze gorpu erori zan.

Maitagarrien olgetak atertu ziran, barreak legortu, abestiak isildu.

Eta artzain gaztearen gorpu inguruan iletak kantatzen asj ziran:

Al, ene! Artzain gazte, gure lagun kutuna!

Ai, ene! Eguzkipeko gazterik zintzoena!

Eguzkia baino ederragoa! Eztia baino gozoagoa!

Maiteminak galdu zaitu!

Biotza **lertu!** Burua ondatu!

Lur au aringarri bekizu!

Bakean atsedean artu eizu!

Maitagarriak curen lorategitik larrosa landararik ederrena artu, eta artzainaren ilobi gainean landatu eben, curen begietako negarrak fleta kantekin nasturik:

EZ DAGO LARROSARIK

ARANTZARIK GABE,

EZTA MAITASUNIK BE

PENARIKAN GABE.

GAUZA EDERRAK DIRA

ZIDAR ETA URRE.


BAINA DANEN GAINETIK

MAITASUNA JABE.

Eta Anbotoko Maitagarrien iturriak orain be atertu barik ura bor-borborka zerurantz isurtzen jarraitzen dan, maiteminduak curen biotzeko egarria ase daien:

MAITASUN BARIK BIZI, EZ DAU MEREZI

IÑAKI GOIKOETXEA





## GURE LURRA TA GU LURTARROK (II): LURRA SORTZEN

Gu bizi garan lur osoa ez da besterik izardiaren baztertxu baten dagoan auts-ale bat baiño.

Gaur dan lakoia izan baiño lenago eguzkiagaz bat zan eta andik banandu zanean izarbel biribil eta iziotu bat baiño ez zan eta gero beronegandik biraka ebillala ardatzaren erpiñetik zati bat askatu zan eta abiadaren indarrak eraginda atzera biurtu-eziñeko leku baten eratu zan gaur jretar-ja dana.

Lurra asieran su utsa zan eta dana lurrun utsezkoa, baiña astiro-astiro otzituten joan zan eta lurrun ziranak otzagaz gorputz sendo biiurtu eta lurraren erdirantza joan ziran.

Orduan dana zan ekaitza, curia ta ikarea. Otza aundia-gotuz, lur-gaiña lcor birtuten asj zan. Gero otz au barrura sartzen joian. Itxasberoaren gaiñean lur sendo erpiñak agertu ziran ugarte-antzera eta oneik alkartuta lur-az ala sortzen eben.

Orduan agertu ziran lenengo urezko euri beroak baiña lurra beroago egoan eta barru lurrun edo laiño biurtzen zan ura. Eta lur-azala otzitu zanean, lenengo itxas aundia sortu zan.

Itxaso onek lur osoa estaldu eban eta "pantalasa" edo itxaso utsa esaten jako orreri. Asieran irakiten egoan baiña otza artzen joan zan. Asj ziran lur-zati batzuk agertzen eta ortxe amaitzen da kosmogoni-aldia, ortxe asten da aldi zarra edo arkaikoa. 3.500.000 urte igaro dira ordutik. Aldi orretan sortu ziran lenengo bizidunak.

Aldi aretako lurrik gaur ez da agirj jñon be gure Bizkaia'n. Laterri Batuetan dagoan Huron zingira da ordukoa.

"MENDIKO BASOAK ETA  
BARRUTIAK EZ DOZUZ  
ERREKO"

TAOSMOAREN 67N. AGINDUA

Len-aldia edo Era Primaria esaten jakonean pizti asko agiri dira: arrainak, tiburoiak...

Aldi onen barruan dago ikatz-aldia edo karbonifero deritxoña eta aldi onetan landaredia asko ugaritzen da eta beroagaz batera ura egoan ezkerro, zugatz aundiak sortu ziran gaur ekuador-aldian sortzen diran antzera.

Orreitatik sortuak dira gaur lurpean ikatz biurtuta dagozan meatz-toki aundiak: Ikatza ez da besterik zugatz aundien usteltze-ondorena baiño.

Mendiak sortzeko eragin bi izan ziran aldi luze onetan: Kaledonitarrak bere mendi aundiakaz Europa erdian eta eskandinabian eta Ipar-Ameriketako Apalatxes mendiak sortu ebazan eta Ertzinianitarrak: emen Galizia'ko mendiak eta Bizkaia'n be ikutu aundia izan eban.

Zelan egoan Euskalerrri a Len-aldi onetan?: Dana zan itxaso sakona alboan Akitania'ko mendiak batean eta Asturias eta Ibero- aldeko mendiak bestean zirala. Barruan lenengo agertu ziranak Aia'ko mendiak eta Etxalar-Orreaga izan ziran.

ZUGATZ BAT SARTU  
DAUANARENA EZ DA  
ALPEREKO BIZITZEA

DANTE

Begiratu daigun astiroago Euskalerrri osoa. Kantauri'tik Lurrarte eta Mediterraneora dana estaltzen eban itxaso onek: 500 milloj urte iraun eban.

Itxas-azpian gai asko joiazan ezarten (sedimentasiñoaren bidez).

Itxaso onek gora-bera aundiak eukiten ebazan eta barruan bizi ziran arraiñen irudi arrituak aurkitzen dira gaur mendietan be bai: arrain txikiak, koralak, itxaskirikoak; aundiak, esaterako tiburoiak, narrasti aundiak, oneik iñoz amar neurki luze daukenak dira, batzuk egodunak ziran aidean ibilteko.

Guztiak galdu ziran bigarren aldi au amaitu zanean. Orduan asj ziran urte-aldiak agertzen: negua ta udea. ■

OLAZAR'tar Martin'ek

# ITXAS-ONTZIGINTZA (II): TREBEBIDE BARRIAK

XIX gizaldian izan ziran gudak kalte aundia egin eutsuen gure Bizkai'ko ontzigintzari. Gaiñera bai-  
mena emon zan itxas-ontziak erbestean erosteko.  
Eta ori g;txi ba litz, Ipar-trenak indar aundia artu  
eban.

Aurrerapenak gure ontzigintzara sartzea be asko  
luzatu zan, esaterako burdiñezko gaiak edo oialen  
ordez lurrunezko motorrak sartzea. Karlostarren  
guda biak kalte aundiak ekarri eutsoezan ain aurrera  
egoan Bizkaia'ri.

Baiña XIX gizaldiaren azkenerantza barrero  
b;zkortu zan gure ontzigintza, batez be 1868n.  
urtean "Diques secos" baltzua sortu zanean, gaur  
Olabeaga'n "Astilleros Españoles" dagoan lekuan  
bertan.

1888n. urtean sortu zan Astilleros del Nerbion eta  
asteko iru korazadun ontzi egin ziran, orduan Espa-  
ña'n egiten ziranen artean onenak. Baltzu orretan lau  
milla langillek egiten eben lan. Ontzi eder oneik  
Cuba'ko gudara eroan ebezan eta an ondatu ziran,  
1898n. urtean.

XX gizaldia asi-barri zala sortu zan Euskalduna  
eta urte bi geroago "Portu" ontzia saldu eutsen Biz-  
kai' ko Laba Aundiak baltzuari. Urte oneitan ikaraga-  
rria zan Bizkai'ko Ontzigintzaren indarra eta Espa-  
ña'ko Ontzirik erdiak Bizkai'ko matrikuladunak  
ziran. Maura'k atera eban lege bat oso ona izan zan  
Bizkai'ko ontzigintzarako.

Zori txarrez, 1914n. urtean guda nagusi bildur-  
garria sortu zan eta España'ko ontzi asko ondatu  
ziran guda orretan, 1080 Bizkai'koak ziran. Guda  
amaitu zanean laster berbiztu zan Bizkai'ko otzi-  
gintza eta 1919n. urtean 169 ontzi egin ziran Biz-  
kaja'n.

1914'ko guda egiten ziarduela be, gauza gogoar-  
gari bi jazo ziran gure ontzigintzan: Sestao'ko

"Naval"aren sorkunza eta 1917'ko bagillaren 3n.  
egunean Artagan-Mendi ;txasoratu zan, ogeta amar  
milla lagun begira egozala. Teofilo Giard'ek diñosku  
ontzi au " Bizkaia'n egindakoen artean ederrena zala:  
122 metroko luzeerea eukan eta 5.718 tone eroan  
eikezan. Emen egindakoen artean aundiena "ordu-  
ko" millo; bi ta erdi pezeta kosta zan.

1914'ko gudaren ostean bizi-bizi dabiltz lanean  
ontzigintza txikiak: Ardanaz, Kadagua, Zunzune-  
gi Beraza ta beste batzuk Bilbao'n eta Ber-  
meo'koa, Lekeitio'koa ta Ondarroa'koa. Ontzi-  
jabeak gudan galdutakoa laster aurretzen dabe eta  
Sota ta Aznar'ek esaterako amazortzi ontzi eskatu  
ebezan.

1920-1930 urteetan ez dago sendotasun aundirik,  
baiña 1923n. urtean itxasoratu zan XIII Alfonso  
ontzia, 1.809 bidailari erroteko gai zana.



1930 inguruko urteak langintza guzt;etarako izan  
ziran txarrak eta txarrak baita gure ontzigintzarako.  
Dana dala, 1930n. urtean itxasoratu zan Artza  
-Mendi, Erdi-ugarte barruan egindako lenengo arro-  
rio-ontzia. Urte beratan urten eben Mar Negro ta  
Mar Cantabrico ontziak eta 1931n'ean amaitu ziran  
España- maillan aundienak ziran Cabo Santo Tomé  
eta Cabo San Agustin ontziak.

**OLAZAR'tar Martin'ek**




**ALDIZKARI ONEK  
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN  
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU**

# EUSKALDUN BARRIENTZAT




Marrazki oneitan 15 ezbardintasun dagoz. Aurkituko dozuz?



**EUSKERAZALEAK**

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha  
48001 BILBAO

Akelarre. Nestor Basterretxea



## BAT GATUZ EUSKAL KULTUREAGAZ

Erakundearen konpromezutzat artuten dogu, geure erri onen arimeagaz bat egitea. Orrexegaitik lagunduten deutsegu gogo osoz, geure nortasun berezia indartuten deuskuen kultur adierazpenai.

Eta aparteko arreta iminten deusagu, kultur adierazpenen artean, gure ezaugarririk gorena dan euskerearen garapenari.

**EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK**



**BBK**  
Bilbao Bizkaia Kutxa